

IKASTAROA K

ASTIGARRAGA

- **Ballet ikastaroa.** Urtarriletik ekainera bitartean izango da, Kiroldegian. Astelehenero, 17:00etatik 18:00etara, 5 urte-tik gorako haurrentzat. Izena emateko edo argibideetarako deitu 656759066 telefonora.
- **Funky ikastaroa.** Urtarriletik ekainera bitartean izango da, Kiroldegian. Astelehenero, 17:00etatik 18:00etara, 9 urte-tik gorako neska-mutikoentzat. Izena emateko edo argibideetarako deitu 656759066 telefono-ra.

AZPEITIA

- **Emakumea eta aldaketak bizitzaldian.** Urtarrilaren 24an hasiko da Azpeitiko Gizarte Zerbitzuak antolatutako ziklo programa. Bertan honako gaiak landuko dira: familiko etxetik irteera, haurdunaldia eta amatasuna, depresioa eta bakardadea, hirugarren adina... Gaiak Aiton-enako areto nagusian jorratu-ko dira, astelehenetan, 15:00etatik 17:00etara. Parte hartzeko deitu 943-157192 telefonoa urtarrilaren 18a baino lehen.

AZPEITIA-ASKOITIA-
ZESTOA

- **Guraso Eskola.** Hiru Udal horietako Gizarte Zerbitzuek antolatuta, 12 eta 18 urte bitarteko gaztetxoei zuzendua. Urtarrila-ren 27an hasiko da, eta matri-kula 1.500 pezetakoa izango da. Ostegunetan burutuko da, 15:15etatik 17:00etara. Ondoko gaiak landuko dira: Familia, adoleszentzia, psikologia, drogak, autoestimua, harremanatarako trebetasunak... Interesa duenak bere Udaleko Gizarte Zerbitzura jo dezake, urtarrila-ren 20a baino lehen.

BILBO

- **Habilidada sozialetarako ikastaro praktikoa: Ni eta nire harremana gainontzekoekin.** Oartu psikoterapia insitutuak antolatuta. Urtarrilaren 26tik apirilaren 12ra iraungo du. Ar-

ERAKUSKETAK

Papiroflexia erakusketa • Javier Morenoren eskutik • Lasarten, Jalgi kafe antzokian • Urtarrilaren 30a arte

Javier Moreno: «Paperezko figurak egitea oso ona da erlaxatzeko»

PAPERA egunero erabiltzen dugun materiala da. Hala ere, oso jende gutxi ohartu da benetako artea egin daitekeela paperarekin, figura ederrak osatu daitezkeela denbora gutxian.

Duela bi urte t'erdi Javier Moreno lasartearra papiroflexian interesatzen hasi zen. «Zoriaren kontua izan zen papiroflexian has-tearena, lagun baten bitar-tez. Figura batzuk egiten hasi zen eta asko gustatu zitzaidan. Liburutegira joan nintzen eta papirofle-xia liburu bat hartu nuen. Egin nuen lehenengo figura txerritxo bat izan zen, eta handik aurrera gero eta lan gehiago egin ditut».

Figura bakoitza nola egi-ten den ondo ikasi behar dela aitortzen du Morenok. «Ez badago konstantziarik ikasitako pleguak ahaztu egiten dira. Figura klasiko-ak oso ongi memorizatuak ditut. Animalia ezberdinak egiten ditut: elefanteak, ahateak, astoak, zaldiak, txakurrak... Ingalaterran izan berria naiz eta gauza berriak begiratzen ari naiz».

Lasartearrak dio inork ez diola irakatsi paperezko irudiak egiten, liburuekin aritu dela. Jende gutxi ibil-tzen da papiroflexia egiten Lasarte inguruan, eta Jalgi kafe antzokikoek erakuske-ta jartzea proposatu zioten Morenori. Lehenengo aldiz



GARI GARAIALDE

Paperezko arte lan txikiak ikus daitezke egunotan Lasarteko Jalgin.

aurkeztu ditu lasartearrak bere paperezko figurak, 80 inguru. Eta berak ez zekien zein erantzun jasoko zuen, baina oso deigarria izan da jendearentzat.

Egin duen azken figura dragoi bat dela kontatu digu Morenok, baina dino-saurioak eta muskerrak ere egiten ditu.

Irudiak egiteko papera besterik ez dela behar dio artista gipuzkoarrak. «Nik edozein paper mota erabil-tzen dut. Badaude paper batzuk bereziak, egokiago-ak direnak. Baina beste paper batzuekin, oso gogo-rrak baldin badira, plegu bakoitza bere jatorrizko tokira itzultzen da eta iru-

dia desitxuratu egiten da. Bestela, truko txikiak era-bili daitezke, kola pixka bat jarrita edo».

Oso figura txikiak egiten ere iaioa da Moreno. «4 milimetrotako ahate bat egin nuen bazkaltzeko behar dudana denbora bere-an». Papiroflexia erlaxatze-ko oso ona dela dio lasarte-arrak eta haurrek oso erraz egiten dituztela irudiak. «Nire alabak, adibidez, sei urte ditu eta 10 pleguko zisne bat egiten du». More-nok Lekunberriko jatetxe batean jarriko du hurrengo erakusketa.

Urtzi Urkizu
DONOSTIA

gibideak 94-4418941 telefono-an.

DONOSTIA

- **Hitano ikastaroa.** Astelehe-ne-an hasiko da, Groseko Auzo El-

kartean (Nafarroa Behera plaza, 6). Izena 943-278577 telefono-an eman daiteke.

ORDIZIA

- **Zeramika ikastaroa.** Kultur

etxean izango da asteazken eta ostiraletan. Helduentzako ikas-taroa da eta datorren udara arte iraungo du. Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 80 56 30 zenbakira deitu.

TOLOSA

- **Lore arteaz ikastaroa.** Astearte eta ostegunetan, 16:00etatik 18:00etara izango da. Urtarrila-ren 25ean hasiko da eta 40 or-duko iraupena izango du guzti-ra. Izena 943-670383 edo 670388 telefonoan eman behar da.
- **'Bizitzaren garapena 50 urte-tik aurrera' ikastaroa.** 50 urte-tik gorakoentzat eta zaharrekin lan egiten dutenentzat. Infor-mazioa eta izen ematea: Udale-txean-gizarte Zerbitzuetako De-partamenduan (943-652099) edo Zentro Gerontologikoan (943-650625). Izena urtarrila-ren 25a baino lehen eman behar da.

URRETXU

- **Urretxuko arte plastikoan tai-lerrak. Eskultura ikastaroa** as-teartetan: Monitorea Iñaki Mari-nelarena izango da eta klaseak kultur etxean, 19:00etatik 21:00etara. **Pintura ikastaroa** asteazkenetan: Javier Sotoren eskutik, kultur etxean, 19:00etatik 21:00etara. **Altzari zaharren zaharberritzea**, oste-gunetan: Ana S. Urkijoren esku-tik, kultur etxean (urtarrilaren 27tik apirilaren 13a arte). Izen ematea 943-724170 telefonoan.

VILLABONA

- **Urtarrileko ikastaroak: egur-lanketa, zeramika, argazkia, enkuadernaketa eta plastika haurrentzat.** Informazioa eta izena ematea kultur etxean, 943-691655 telefonoan. Arra-tsaldeko 15:00etatik 19:00eta-ra.

ZUMAIA

- **Bizikleta eta motozikleta bri-kolajearen ikastaroa.** Bizikle-ta: 18 orduko ikastaroa ostiral arratsalde, 18:00etatik 21:00etara. Motorra: 18 orduko ikastaroa larunbat goizez, 10:00etatik 13:00etara. Matri-kula: Bi ikastaroak 4.000 pezeta (gazte txartelaz 2.000) eta ikas-taro bat 3.000 pezeta (gazte txartelaz 1.500). Izena emateko epea urtarrilaren 17an amaitu-ko da. Argibide gehiago 943-861056 telefonoan.

ZINEJOKOA

Abenduko kotxea saritu du



VOX POPULI

BILBONDO CAPITOL COLISEO ALBIA IDEALES MAX CENTER MULTICINES



Gloria Perona Carrasco anderea Fiat Seicento-ko giltzak hartzen.